

Harremanak sarean

Euskal Herriko gay eta lesbianen giroa bultzatu, ezagutarazi eta haien arteko harremanak zabaltzeko sortutako web orria da *Lesgaybilbao*

Gizakion arteko harremanak hedatzeko azken puntako teknologiek eskainitako euskarri berriak era guztietako informazioa lortu, eta, era berean, lagun berriak egitea ahalbidetu digu. Internet, esaterako, leku egokia da oso horretarako, sarean hamaika leku, gauza eta lagun aurkitzeko modua dagoelako, saguarekin klik bat egite hutsarekin.

Hala eta guztiz ere, bereziki Euskal Herriko gay eta lesbianen giroa bultzatu, ezagutarazi eta hauen arteko harremanak hedatzeko sarean aurki daitezkeen web orriak ez dira guk uste bezain beste. *www.Lesgaybilbao.com* izan daiteke, behar bada, mugimendu homosexualari buruz hitz egiten duen orrialde bakarrenetarikoa Euskal Herrian.

Bilbo ezagutuz

Web orri hori ez da erakunde pribatu edo publikoaren ekimenetik sortu, ezta gay eta lesbianen taldetik ere; egitasmo partikularra da, eta bi emakumeren ekimenez sortutakoa da. «Orrialdeak Bilboko hiria, kultura eta bertako mugimendu homosexuala eta giroa ezagutaraztea du helburu. Hiria ezagutzeko zabalik dagoen ate antzeko bat da», azaldu diote EGUNKARIARI web orrialde horren sortzaileek. Tabernak, pub, diskotekak, jatetxeak, elkarteak, kultur agenda, osasuna, bidaiak, ekologia, lurriak, literaturaren inguruko informazioa, gay eta lesbianen elkarten inguruko informazioa, eta beste hamaika gune eta informazio mota eskaintzen dira aipatu web orrialde honetan.

Argazkiak ditu oinarri, eta diseinu arin eta erakargarria ditu web orrialdeak. *Lesgaybilbao*-k norberak bere burua hobeto ezagutzeko bideak aurkezten dizkigu. «Bere kezkek, iritziak, informazioa eta aholkuak adierazi nahi dituen orok leku berezi bat aurkituko du orrialdean, eta doan, gainera. Iragartzen diren elkarte eta erakundeek ez dute deus ere ordaintzen, egitasmo honek hitzarmenari esker irauten baitu. Era berean, ez dute zertan homosexual mugimendukoak izan, nahiz eta agertzen diren gehienek honekin zerikusia duten», argitu dute sortzaileek. *Lesgaybilbao* orrialde



PIER PAOLO CITO / EFE

Literatura, tabernak, erakusketak eta bereziki bidaien inguruko atalak dira kontsultatuenak orri honetan.

BULTZATZAILEAK

Ez da erakunde baten ekimenez sortu, ez eta homosexualen elkarte batek bultzatuta ere. Ekimen pribatua da

honetako partaide izateko *info(arroba)lesgaybilbao.com* helbidera idaztea besterik ez dago.

Informazioren kokagunea

Duela hiru urte sortu zenetik hona, urtez urte hauen bezeroak ugaritzen joan dira, eta, gaur egun, batez beste egunean 1.500 lagun sartzen dira orrian kontsultak egiteko. Bezeroak gehien erakartzen dituzten ata-

lak literatura, bidaiak, tabernak, jatetxeak eta erakusketak birtualak dira. «Ez da ohiko literatura eskaintzen, eta aldiz, hain ezagunak ez diren idazleek kaleratutako lanak ezagutzeko aukera eskaintzen da. Gauza bera gertatzen da kultur agenda eta erakusketak birtualarekin ere. Hala, oihartzun handia ez duten ekitaldi esanguratsuen berri emateaz gainera, baliabide urriak dituzten margolariei euren lanak erakusteko lekua eskaintzen zaie, Aizpuruaren lanak esaterako. Orri hau espazio alternatiboa da».

Zabalburu Zentro Medikuak elkarlanean dihardu aipatu egitasmo honekin, eta bertan, sexuari eta homosexualitateari buruzko kezkek argitzen dituzte.

EDUKIA

Web orrialde alternatiboa da Lesgaybilbao. Denetarik aurki daiteke bertan, eta txateatzeko aukera ere eskaintzen du

Heterosexualen kasuan bezala, gay eta lesbianen arteko harremanak bultzatu eta lagun berriak ezagutzeko Internetek eskaintzen dituen aukerak ugariak dira. *Lesgaybilbao.com*-ek txateatzeko eta sakelako telefonoetara mezuak bidaltzeko aukera eskaintzen du.

E.Aristizabal laguna honen lekuko da, txata dela medio, egunero, batez beste ordu eta

'GHEISEMUÁ' ALDIZKARIA

Hausnarketarako agerkaria

Azken teknologia erabiltzearen kontra daudenentzat, eta hau iristerik ez dagoen lekuetara informazioa ailegarazteko, Euskal Herriko gay eta lesbianen Gehitu elkarteak *Gheisemuá* aldizkaria kaleratzen du lau hilabete behin. «Homosexualitateari buruzko eztabaida eta iritzia, gay eta lesbianek ditugun eskubideak aldarrikatzeko, eta itzalean zegoen esparrua geureganatzeko sortu genuen aldizkaria», dio bertako zuzendari den Gonzalo Garciak.

Kaleko jendeak idatzia eta bereziki hauei zuzenduta dagoen aldizkaria da, nahiz eta homosexualitatearen giroko idazleen kolaborazioa izaten duten sarri. *Gheisemuá*-k atal finkoak ditu; sexologia, luma heterosexuala, bis a bis, iritzi artikulatuak, eta elkarrizketak, besteak beste. «Xedea gizar-tean homosexualitatearen gaia, kezka, analisia eta hausnarketa antzematea da, eta hauek guztiak jasotzen ditu aldizkariak», argitu du Garciak. Aldizkaria doan banatzen da, eta Gipuzkoako zenbait herri eta Donostiako taberna, kultur etxe eta udal-etxeetan aurki daiteke. Apurka-apurka, baina, Euskal Herriko beste hiriburuetara ere hasi da zabaltzen *Gheisemuá*.

erdi inguru aritzen baita sareko ziber-lagunekin hitz egiten. «Sexu bereko pertsonak ezagutzeko eta homosexualitateari buruz dituzun kezka guztiak argitzeko oso baliagarria da txata», Aristizabalen bera- ren hitzetan.

«Denetarik aurki daiteke sarean; sexua soilik nahi dutenak, lagunak edo jendea ezagutzeko xedearekin sartzen direnak ..., denetarik. Nik, esaterako, lagun handiak ditut, txatari esker ezagututakoak», nabarmendu digu Aristizabalek.

Beraz, *lesgaybilbao* web orrialdea baino gehiago izatea lortu du, gay eta lesbianen informazio eta harremanen euskarri bilakatu da.